

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko martxoaren 6a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzitako osoko zuzenketa (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, familia ugariei buruzkoa. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).
- Foru Lege proposamena, eguzkiaren energia erabiltzeko egokitutako eraikinak egiteari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (9. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Lankidetzaz hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean sinatzekoa, lurralde-kooperazioko programen barruan irakurketa sustatzeko. Osoko Bilkuraren baimena (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bizikletari buruzko plan zuzentzaile bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia fotovoltaikoa hedatzeko berririazko plan bat presta dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2003 ikasturterako beken deialdian errenta mugak eta beken zenbatekoa igo ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 3/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia (13. or.).
- 4/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia (13. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, Karguan aritzeagatik euren kideei sariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Foru Lege proiektua 2002ko abenduaren 16ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari 1.b) letra aldatzea.

“Ziurtagiria” hitzaren ondotik honakoa gehitzea: “Aurrekontu luzatuen kasuan, aurrekontu horiek hartuko dira erreferentziazat”.

Zioak: Bermatzea arauaren interpretazio murriztaile batek ez duela galaraziko dirulaguntza horiek jasotzeko aukera.

2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

e) letra gehitzea proposatzen dugu.

“e) Kargu publikoak eskatzen duen dedikazioaren ondorioz jaso ez diren ordainsari eta hartzekoen ziurtagiria.”

Zioak: Kargu publiko batean aritzen denak ustez dauzkan interes altruistak nahastuko ez dituen irabazi asmorik ez egoteko, gure ustez zuzena da hautetsiei ordaintzea kargu publikoan aritzearen ondorioz beren lanetan jasoko ez dituzten diru-kopuruez, betiere gehieneko muga batekin, errenta altuenak dituztenen alde nabarmen ez jokatzeagatik.

3. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idatz-zatia kentzea proposatzen da, betiere urteko funtsa gutxitu gabe. Gure ustez, dirulaguntzak egoera orokorrean erantzuteko dira, ez sekula egoera berezietan erantzuteko —esate baterako, dedikazio eskusiboari edo partzialari erantzuteko—. Udalei dagokien dedikazio eskusibo edo partziala duten zinegotzien kopurua zehaztea. Gobernuak egiten duen proposamenak, hain zuzen ere diruz lagun daitezkeen dedikazio eskusibo edo partzialeko zinegotzien kopurua finkatzea, berekin dakar udalen antolatzearen ahalmena mugatzea, eta toki entitateen autonomia ukitzen du. Zinegotzientzat zenbait dirulaguntza proposatzeaz gainera, lehen mailako eta bigarren mailako zinegotziak daudela agertzen du proiektuak.

Gobernuaren planteamendua bereziki onargarria da udal handientzat, zeren eta udal txikietan, kopuruak handitzen ez diren bitartean, zail

gertatuko baita egoera horretan egonen diren zinegotzien kopuru jakin bat egotea.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa dioen lekuan: "1.803.036 euro 2003rako eta 3.606.072 euro 2004rako" dioen lekuan, ondokoa esan behar du: "2.801.896 euro 2003rako eta 5.603.793 euro 2004rako".

Zioak: Udalek bizi duten egoera ekonomikoa eta gastu berriak beren gain hartzeko dauzkaten zailtasunak kontuan hartuta, gomendagarria da Nafarroako Gobernuaren aurrekontuek oinarri lagungarri osoa hartzea, haren ehuneko ehun, aurreko zuzenketetan proposatzen den bezala.

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Laugarrena. Foru lege honek indarra hartzen duenetik hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege honetan ezarritako ordain ekonomikoen sistemari atxikitako kargu publikoen bateraezintasunen eta udal jarduerarako dedikazioaren araubidea arautuko du foru dekretu bidez.

Zioak: Gure ustez bateraezintasunak ezarri behar dira eta foru lege honetan ezarritako ordain ekonomikoen sistemari atxikitako kargu publikoen udal jarduerarako dedikazioa exijitu behar da.

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Bosgarrena. Foru parlamentariak, kargu publikoan ari direla, aukera izanen dute dedikazio eskusiboko araubidea hautatzeko. Foru lege hau onetsi eta hilabeteko epean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak dedikazio eskusiboko hautazko araubide hau erabaki eta onetsiko du."

Zioak: Gure ustez, foru parlamentariatzat dedikazio eskusiboko hautazko sistema bat ezarri behar da.

Foru lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZITAKO OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza, Félix Puyo Rebollo eta Shanti Kiroga Astiz jaunek karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa bazterzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Toki Administrazioako Batzordera igortzen da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, familia ugarietarako buruzkoa

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Gizarte Gaietako Batzordeak familia ugarietarako buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2002ko ekainaren 17ko 67. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahaliko dira:

– 8, 11 eta 12 bis “in voce” zuzenketa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearenak.

– 2.2, 6, 7, 16, 17. artikuluei eta xedapen gehigarriari Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko boto partikularrak.

– 2, 9 eta 54. zuzenketa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearenak.

– 55 eta 58. zuzenketa, Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearenak.

Zuzenketa horiek 2003ko urtarrilaren 28ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

“In voce” zuzenketa hauek dira:

– 8 zenbakiko “in voce” zuzenketa.

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa dioen lerrokada bat gehitzea proposatzen dugu:

“Urtero Familiaren Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, seme-alaba bakoitzarengatik emanen diren laguntzak eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergatik ken daitezkeen kopuruak proposatuko ditu, familia ugarietarako eta erditze multiple bat izan duten familietarako.

Seme-alabek hamasei urte izan bitarterako emanen diren zuzeneko laguntzak.”

Zioak: Urte bakoitzerako seme-alaba bakoitzarengatik zuzeneko laguntzak eta, kasua bada, PFEZaren kuotatik ken daitezkeen kopuruak. Laguntza horiek une honetatik ezartzen dira, baina ez dira kuotatik kentzen; horrek, betiere, progresiboago bihurtuko litzuzke.

– 11. zenbakiko “in voce” zuzenketa:

13. artikuluari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

“Nafarroako Gobernuak hobarien sistema bat aztertuko du beren langileentzat etxebizitza berriak erosteko laguntzak ematen dituzten enprezentzat, baldin eta etxebizitza berria erostea beharrezkoa bada seme-alaba gehiago jaiotzeko.”

Zioak: Sistema horiek Europako herrialdeetan badaude, eta gure erkidegoan ezartzea aztertu beharko litzateke. Elkarrearen proposamen bat da.

– 12.bis zenbakiko “in voce” zuzenketa:

14. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“Langabezian dauden aitak edo amak kontratu mugagabe batez kontratatzen dituzten enpresei zerga hobariak emanen zaizkie.”

Laguntzak emanen zaizkie lantokian haurtzaindegiak jartzen dituzten enpresei.”

Zioak: Artikuluaren gainerakoa, asmo onez beterik dagoen arren, again Konstituzioaren kontrakoa izan daiteke.

Iruñean, 2003ko martxoaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Familia ugarietako buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioaren hirugarren kapituluak gizarte eta ekonomiaren arloko politika zuzendu behar duten oinarriak aipatzen ditu, eta 39.1 artikuluan ezartzen du botere publikoek ziurtatu behar dutela familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa.

Konstituzioaren agindu horrek lotura zuzena izan behar du gure Konstituzioaren 9.2 artikuluan jasotzen denarekin, alegia, botere publikoen bete-beharra dela beharrezkoak diren baldintzak sustatzea banakakoaren eta berau sartzen den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen; horien betetasuna galarazten edo zailtzen duten eragozpenak kentzea eta politika, ekonomia, kultura eta gizartearen arloan hiritar guztiek parte har dezaten erraztea.

Dudarik gabe, familiak bizi diren errealitate sozio-ekonomikoa nabarmen aldatu da azken urteotan, baita ase beharreko premiak eta eskura dituzten bitartekoak ere, gehien bat familia larrien kasuan.

Bada kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, familia ugariarentzako babestu beharra areagotzen duena, eskubide eta betebeharrak sozialaren artean egon beharreko elkarrekotasuna, alegia. Bikote batek bere egoera lege ondorioetarako erregularizatzea erabakitzen denean gertatzen den bezala, harreman horrek eskubide eta betebeharrak sozial eta pertsonalak eragiten baititu, familiek seme-alabak dituztenean zenbait betebeharrak sortzen dira horiekiko eta gizartearekiko. Halaber, elkar eraginez, betebeharrak horiek duintasunez betetzeko ahalmena emanen dieten eskubide sozial batzuk ere izan behar dituzte.

Ezinbestekoa da neurri zehatz eta puntualak haratago joan behar diren politika orokorra egitea familiaren arloan. Ekonomiaren ikuspegi hutsetik aintzat hartu beharreko gaien arteko bat da ekonomiaren hazkunde oso loturik dagoela giza kapitalarekin eta beronen prestakuntzarekin.

Giza kapitalaren ikuspuntutik hazten ez den gizartearen erabateko porrotera bidean doa, baita ekonomiari dagokionez ere. Behar-beharrezkoa da horrenbestez botere publikoek babesa ematea horrelakorik gerta ez dadin aktiboki ahalegintzen direnei. Gizartearentzat onak diren jarduerak babesten baldin badira, soilik maila ekonomiari begira eta familiaren duintasuna iraintzeko asmo-

rik gabe, halakoak diren familiak ere babestu behar dira.

Beharrezkoa da, halaber, pentsatzea eskubide berdinek izateko aurrera pausak ematen jarraitu eta lana eta familia uztartzen lagundu nahi badugu, begi bistakoa dela familia ugarietako beste taldeko tratua jaso behar dutela. Eskubideen mailako berdintasuna ezkontideentzako ez eze seme-alabentzat ere lortu behar da. Tratu mailako berdintasunak, familia eta lana uztartzeari dagokionez, ezkontideengan eta seme-alabengan izan behar du eragina.

Beharrezkoa da zuzenketak egitea familien zuzeneko fiskalitatean, baina berehalako jarduketan helburua izan behar da familia horietako zerbitzuen prestazioa hobetzea, zuzeneko laguntza ekonomikoaren bitartez, zerbitzu publikoak eta pribatuak ere –irakaskuntza– eskuratzeko erraztasunak emanez eta, batez ere, gastuak murrizten laguntzea.

Bereziki aurreikusi behar da, halaber, amatasunaren egoera orokorra –famiak beste seme-alaba batzuk dituen kasuan, zehazki– eta amatasuneko bajaran aldia luzatu 3 urtetik beherako seme-alabak edukiz gero, etxeko laguntza eman, haurtzaindegiko zerbitzuak ere eskura jarri eta abar.

Nafarroako Parlamentuak 2002an onetsi zuen familiari laguntzeko departamentuen arteko plana, familia ugarietako ezaugarri bereziak lege bidez arautzeko premia aurreikusten duena.

Nafarroan 7.500 titulu inguru izan behar dira, eta horietatik 5.347k izan behar dute indarra, gutxi gora behera; aise frogatu daiteke, ordea, famili ugarietako kopurua askoz handiagoa dela Foru Komunitatean, baina familiek ez dutela arrazoi handirik ikusten titulu eskuratu edo eskatzeko, ikusirik zein prestazio gutxi dakarren.

Familia ugaria izateagatik egun eskaintzen diren prestazioak, laburbilduta, irakaskuntza, garrarioa, aisialdia eta horrelakoetarako laguntzak dira.

Beste autonomia erkidegoetan deskontuak egiten dira zerbitzu publikoetan, hala nola, ur zerbitzuan, hiriko autobusetan, haurtzaindegietan, kanpalekuetan, osasun establezimenduetan. Gauza bera gertatzen da Europako beste herrialde batzuetan, batez ere Suedian, Alemanian, Luxenburgon, Belgikan eta Frantzia.

Aski da aipatzea Suediako kasua, bertan familiari gizarte babesa emateko prestazioek ehuneko 12,7 egiten baitute, eta Alemanian eta Frantzia, berriz, ehuneko 8,1 eta Espainian ehuneko 0,9,

Eurostaten datu ofizialen arabera. Eta ez ditugu aipatuko familiek seme-alaba bat jaiotzeagatik Frantzia, Alemanian edo Belgikan jasotzen dituzten prestazioak. Zilegi da esatea Nafarroako gizartearen errenta eta ongizatearen parametroak europarrak izanik, logikoa dirudiela familia ugariak ere europarren onura berdina izatea.

Familia ugarien kopurua Nafarroan 18.800 da, familia ugariaren txartela dutenen kopurutik -5.347- urruti samar dagoena eta 98.800 pertsona inguru hartzen dituena, hau da, Nafarroako populazioaren ehuneko 20, gutxi gorabehera.

Horregatik guztiagatik beharrezkoa da egungo legeria, batez ere Familia ugari buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legea, oinarritik aldatzea. Beharrezkoa da familia ugaria babesteko orain artekoa baino zuzenagoa izan den legeria ematea. Nafarroak ezin du bazter utzi, haren eskumene esparruan, familia ugariak behar duten babesa ematea, eta horregatik proposatzen da honen bidez arautzea.

Familien babes sozial, ekonomiko eta juridikoen arloan beharrezkoa da botere publikoek familia ugarien babes-mailan funtsezko hobekuntzak ezartzea, laguntza eta zerbitzuak lehentasunez bideratuz zailtasun edo ahulezia larriena pairatzen duten familiei, hala nola: erditze anizkoitzetan jaiotako seme-alabak, familia-unitatearen askatasun ekonomikorik eza, familiako edozein kideren ezgaitasun frogatua, edo familia, gizarte eta kultura esparruetan urritasunak izatea suertatzen bada.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek familia ugarientzako laguntza erregulazioa ezartzen du. Laguntza hori gauzatzeko diru-laguntza berariazkoak eta sostengua emanen zaie familia ugari hainbat esparrutan: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, familia eta lana bateragarri egitea, garraioa eta tratamendu fiskala.

Foru lege honek ezarritako laguntzak erregelamendu bidez ezarritako per capita errentaren araberaren arautuko dira.

1. bis artikulua berria. Aplikazio eremua.

Foru lege honetako xedapenak nafarrak diren edo Foru Komunitatean bizi diren familia guztiei aplikatuko zaizkie, baldin eta lege ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

2. artikulua. Familia ugariaren kontzeptua.

Familia ugaria da foru lege honetan ageri diren baldintzak bete eta honako kide hauek dituen:

a) Aita, ama eta hiru seme-alaba edo gehiago.

b) Aita, ama eta bi seme-alaba, baldin eta horietako batek, gutxienez, lege aitorturiko ezgaitasuna edo ezintasuna badu.

c) Alargunak, lege edo egitatez banandurik daudenak edo ezkontza desegina dutenak, gehi hiru seme-alaba.

d) Aita, ama, horietako bat edo biak ezgai badira edo lanerako ezintasun iraunkor bat aitorturik badute, gehi bi seme-alaba.

e) Artikulu honetako a) eta b) letretan ezarritako seme-alaba kopurua daukaten eta zehazturiko baldintzak betetzen dituzten ama eta aita ezkongabeak.

2.- (KENDUTA).

3. artikulua. (KENDUTA).

4. artikulua.

Familia ugaria lege izateko, ondorengoek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Ezkongabeak eta 21 urtetik beherakoak izatea edo, adinez zaharragoak izanez gero, ezgaitasun iraunkorra behar bezala egiaztatua izatea.

2. Familia unitatearekin bizitzea eta ekonomiki haren menpekoak izatea.

3. Ikasketa arauturen bat egiten ari diren eta horren frogak aurkezten dituzten 21 urtez gorakoek adin-luzapen bat izan behar dute, 25 urtera arte.

5. artikulua.

1. Familia ugariak, 2 eta 4. artikuluetako baldintzak betetzen dituzten seme-alaben kopuruen arabera, honako kategoria hauetan sailkatuko dira:

a) Lehen kategoria, hiru edo lau seme-alaba dituzten familiak.

b) Bigarren kategoria, bost edo sei seme-alaba dituzten familiak.

c) Hirugarren kategoria, zazpi seme-alaba edo gehiago dituzten familiak.

2. (KENDUTA).

3. (KENDUTA).

Idatz-zati berria. Lege honen ondorioetarako, ezgaitasuna duen seme-alaba bakoitza bi balira bezala hartuko da.

6. artikulua. (KENDUTA).

II. KAPITULUA

Hezkuntzako neurriak

7. artikulua. (KENDUTA).

8. artikulua. Babes-ekintza hezkuntza ez-unibertsitarioan.

Familia ugarientzat baremo bereziak egonen dira hezkuntza ez-unibertsitarioko tarte guztietan liburuatarako, eskola materialerako, jantokirako eta garraiorako laguntzak eta bekak emateko.

9. artikulua. Babes-ekintza unibertsitateko hezkuntzan.

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz gartuko ditu unibertsitateko hezkuntzako beka berezien laguntzak familia ugarientzat, beka bereziak izanen baitituzte irakaskuntzako, joan-etorrietako eta lojamenduko gastuei aurre egiteko.

10. artikulua. Hobari sistema.

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz gartuko du familia ugarientzako hobari sistema bat gizarte etxe, aterpe, udal kanpaleku eta aisialdiko lokaletako tarifetan, bai eta kultur ondasunetara, kirol eta aisiako jardueretara sartzeko tarifetan ere, Nafarroako administrazio publikoetako menpekoak izan eta Foru Komunitatean badira.

11. artikulua. Garraio publikoaren eta eskola-koaren erabileran hobariak.

Garraio publikoaren eta eskolakoaren erabileran hobariak ezarriko dira Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan garatzen diren familia ugarietako kideen alde.

III. KAPITULUA

Gizarte eta osasun neurriak

12. artikulua.

Nafarroako Gobernuak laguntzak ezarriko ditu familia ugarientzat, osasun tratamenduek –ortodontzia, entzumenekoak, oftalmologikoak, ortopedikoak, psikologikoak, pedagogikoak edo etxeko laguntzakoak– eragindako gastuei aurre egiteko.

IV. KAPITULUA

Etxebizitzaren arloko neurriak

13. artikulua. Etxebizitzaren arloko babes jarduera.

Familia ugarientzat, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez babes ofizialeko etxebizitzaren erreserba bat ezarriko du, ezgaitasunen bat duten pertsonentzat finkatutakoaren modukoa; etxebizitza horien ezaugarriak eta azalera erabil-

garria –90 metro koadro baino handiagoak izan ahalgo dira– zehaztuko dira bertan.

Deialdi publikoa eta baremoen aplikazioa aginduzkoa den babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioan, berariaz puntuatuko da familia ugaria izatea.

Nafarroako Gobernuak arautu egingen du familia ugariei ondoko arloetan hobariak ematea:

a) Lehendabizikoaren etxebizitzarako lurralde kontribuzioaren gaineko zerga, azalera handiagoa behar baitute, premia horrek familia ugarientzat kostua areagotzea ekarri gabe.

b) Babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzak erosteko edo familiako kideen kopurua handitu delako azalera handiagoko etxebizitza batera aldatzeko maileguetako amortizazio eta interes kuotak.

c) Etxebizitzak zaharberritzeko edo/eta familia-kideen kopurua handitu delako etxebizitzaren azalera handitzeko lanak egiteko maileguetarako amortizazio eta interes kuotak.

V. KAPITULUA

Lan arloko neurriak

14. artikulua. (KENDUTA).

15. artikulua. (KENDUTA).

16. artikulua. (KENDUTA).

17. artikulua. (KENDUTA).

VI. KAPITULUA

Zehapen araubidea

18. artikulua.

1. Foru lege honen onuradunek foru lege honetan xedatutakoa edozein modutan ezkutatu, faltsutu edo doluz hautsiz gero, Nafarroako Gobernuaren zehapena jasoko du: 601,01 eurotik 6001,01 eurora bitarteko isuna edo foru lege honetan ezarritako onurez gabetzea edo bi neurriak batera.

Pertsona horiek, eskubiderik izan gabe onura batzuez nahita gozatzeagatik iruzurra egiten badute, Nafarroako Gobernuan horretaz arduratzen den departamentuak dagokion onuraren arabera ezarritako zehapena jasoko dute, iruzurraren xede izan den zenbatekoaren halako bi egingen duen isuna, alegia, salbu eta iruzurrari aplikatzen zaion legeriari jarraikiz zenbateko handiagoko zehapena paratu ahal den kasuan.

2. Artikulu honetan xedatutakoak ez ditu baztertuko aipatzen diren gertaerek eragin ditzaketen erantzukizun zibilak edo penalak.

Xedapen gehigarri bakarra. (KENDUTA).

Xedapen iragankor bakarra. Neurri fiskalak.

Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, familia ugarietako sostengu eta sustapenerako neurri fiskal batzuk aurreikusiko dituen familia hauen fiskalitatea hobetzeko zenbait alderditan, hala nola, familia ugariari aplikatu beharreko zerga arintzeak, ibilgailuen gaineko zergak eta abar.

Xedapen derogatzaile bakarra. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Erregelamendu garapena.

Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamenduak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina sortuko ditu ondorio ekonomikoak.

Foru Lege proposamena, eguzkiaren energia erabiltzeko egokitutako eraikinak egiteari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2003ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Eguzkiaren energia erabiltzeko egokitutako eraikinak egiteari buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko urriaren 28ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

D saila:
HITZARMENAK

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onetsi zuen. Aldaketa hori Nafarroako gobernuak eta nazioko

gobernuak izenpetu zuten 2003ko urtarrilaren 22an.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lankidetza hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean sinatzekoa, lurralde-kooperazioko programen barruan irakurketa sustatzeko

OSOKO BILKURAREN BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Lankidetza hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean sinatzekoa, lurralde-

kooperazioko programen barruan irakurketa sustatzeko". Haren testua 2003ko otsailaren 12ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletari buruzko plan zuzentzaile bat presta dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2003ko otsailaren 27an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletari buruzko plan zuzentzaile bat presta dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletari buruzko plan zuzentzaile bat presta dezan

Nafarroako Gorteek Gobernua premiatzen dute bizikletaren plan zuzendari bat prestatzera aurtengo urria baino lehen eta hura Parlamentura igortzera eztabaidatu eta onesteko. Prestaketa lanetan aintzat hartuko dira arlo horrekin zerikusia duten gizarte elkarteak eta kontuan hartuko ere beste herrialde batzuetan izandako antzeko esperientziak.

Plan horren helburua izanen da bizikletaren erabilera sustatzeko behar diren neurriak zehaztea, besteak beste, toki agintariak eta kasuan kasuko erakundeak sustatzea, sostengua eta finantziazioa emanez, edo gaiarekin lotutako alderdien erantzukizunak zehaztea. Era berean, hirigintza eta bideen planeamenduan bizikleta erabili ahal izateko tokiak egokitu beharra hartuko da kontuan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia fotovoltaikoa hedatzeko berariazko plan bat presta dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia fotovoltaikoa hedatzeko berariazko plan bat presta dezan".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2003ko otsailaren 27an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2003 ikasturterako beken deialdian errenta mugak eta beken zenbatekoa igo ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2003 ikasturterako beken deialdian errenta mugak eta beken zenbatekoa igo ditzan".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2003ko otsailaren

27an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko maiatzaren 13ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

3/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2003ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen ondoko Foru Dekretua berrestea: "3/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena". Dekretu

hori 2003ko otsailaren 12ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

4/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena


OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2003ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen ondoko Foru Dekretua berrestea: "4/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena". Dekretu hori 2003ko otsailaren

12ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	